



Ikasleekin konektatzeko moduak

Gauza jakina da ikasleekiko harreman gertukoa eta zuzena oso inportantea dela. Eskola Txikietan gure izaeraren berezko ezaugarri moduan bultzatzen dugun ezaugarri eta ardatzetako bat da gertutasunarena. Baina, eskola presentzialik gabeko garaiotan, zer egin dezakegu gertuko harreman horiek garatzen jarraitzeko?


Ondoko dokumentu honetan proposamen bat bildu nahi izan da: **Bideo konferentzia lehia zabalik uztea eta ikasleak, behar hori sumatzen dutenean, konektatzea:**

Aplikazioa: www.jitsi.org.


Baldintzak: *ez da aparteko ezer behar, hori bai, komenigarria da pasahitza jartzea, bestela edonori bideo deian sartzeko aukera ematen zaiolako:*

Ondoko pausuak jarraituko ditugu bideo konferentzia horretarako:


- www.jitsi.org webgunea zabalduko dugu:




- "Start a call" klikatuko dugu, hau da, dei berri bat hasi, eta ondoko lehia zabalduko zaigu:




- Start a new meeting jartzen duen testuaren azpian, sortuko dugun leiholari izen bat jartzeko aukera emango dizue:



- Behin izena jarritakoan, klikatu "GO", eta ondoko leihora ailegatuko zara:



- Hortxe, eskuinetan agertzen den leihotxoan agertzen da informazio guztia, informazioa esan nahi duen "i" txikiari klikatuta ikusi ahal izango duzue:



- Kasu honetan, inportantea iruditzen zait pasahitza jartzea, bestela edonor sartu baitaiteke. Horretarako, klikatu "add password" jartzen duen testua, eta idatzi zein izango den leihora sartzeko pasahitza.



COVID-19. Ikasleekin konektatzea 2.

- Hona iritsitakoan egin nahi dizuet proposamen konkretua:
 - Kopiatu esteka hori eta jarri zuen web orrian horra sartzeko bide erraza.
 - Antolatu ordutegiak, aldioro, irakasleren bat konektatuta egon dadin, zalantzak argitzeko, hitz egiteko, ipuinen bat kontatzeko ...
 - Zabaldu informazioa ahalik eta modu esanguratsuenean ikasleak eta gurasoak honen jakitun izan daitezen.